

Azkenik, badirudi Apophisek ez gaituela joko 2036an

L.ESPACE.COM



LURRAREN INGURUAN milioika harri-puska ari dira biraka. Ez dira gutxi gure atmosfera zeharkatu eta lurra jotzen dutenak. Asko erabat suntsitzen dira atmosfera zeharkatzean, eta guregana heltzen direnak txikituta ailegatzen dira gehienetan. Lurraren orbitan biraka ari direnak eta tamainaz handi samarrak direnak kontrolatuta ditugu, nolabait esatearren, hau da, euren orbitak ezagutzen ditugu eta

hurrengo urteetan zer egingo duten ere bai, gutxi gorabehera.

Beste kontu bat da unibertsoan zehar norabiderik gabeko bidaian dabil-tzan asteroideena, Lurretik distantzia jakin batera hurbildu arte detektatze-ko zailak direnez ezuste handiagoak eman ditzakete eta. Azken aldian nola-baiteko alarma piztu dute horietako bati buruz hainbat berriemailek emandako informazioek. Urtarrilaren 9an, Apophis izeneko harri puska 14,4 milioi kilometrora hurbildu zitzaigun, eta hainbat hipotesiren arabera 2029 eta 2036 urteetan 30.000 kilometro ingurura hurbildu daiteke. Kalku-luak egiteko sistemaren errakuntza tarteagatik, %2ko probabilitatea zegoen Apophisek Lurra jotzeko; kontuan hartzen badugu haren diametroa 350 metrokoa dela, piztutako alarma justifikatutakoa izan zitekeen.

Dena den azken berriak oso lasaigarriak izan dira, NASAk egindako neurketen arabera Apophis 2036an hurbilduko baita Lurrera, baina uste zena baino askoz urrutirago geratuko da.

Askoz lehenago jasoko dugu 40 metroko diametroa duen DA14 izeneko asteroidearen "bisita": datorren otsailaren 15ean gugandik 27.700 kilometrora igaroko da. ■



Izarren sehaska bat atzeman dute hemendik 1.000 argi urtera

Herschel behategi espazialak hazten ari diren 600 gune inguru detektatu ditu Lurretik 1.000 argi urtera. Hautsez eta gasez osaturik dauden izarrek sehaska batean izango balira kokaturik daude, eta horietatik 150 inguru izar bilakatzeko azken faseetan daude.

ttiki.com/46309
(Gaztelaniaz)

Gero eta gatz gehiago dago munduko ibaietan

Australia, Frantzia, Alemania eta Kataluniako hainbat unibert-sitatetako ikerlari talde batek argitara emandako artikulu baten arabera, mundu osoan ibaien gazitasuna handitu egin da, eta horren ondorioz ekosis-tema osoak eraldatuko dira. Besteak beste Mediterraneoan itsasoratzan diren ibaiak aipatu dituzte ikerlariek.

ttiki.com/46310
(Gaztelaniaz)

Monitore malguetan aurrerapenak

MOBILEGEEKS.DE



DUELA HILABETE BATZUK aipatu genuen LG enpresa korearrak Flex One izeneko e-book malgua aurkeztu zuela; orain Samsung izan da telefono eta tablet arteko sistema berri batekin azaldu dena, Las Vegasen (AEB) egindako CES erakustazokan.

Ez dakigu erakutsitakoa noiz merkaturatuko den, baina garbi dago monitore eta sistema malguen arteko lasterketa abian dela. ■



Homosexualitatearen arrazoi genetikoak bila

Homosexualitate edo heterose-xualitateaz hitz egin denean ia beti arazoak sortzen dira, batez ere arazo etikoak. Oraingoan, ikerlari talde batek zientzia hutsaren ikuspegitik gaiari heldu nahi izan dio, eta bere ondorioak plazaratu ditu.

ttiki.com/46311
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

www.iametza.com
 T.943 37 67 16